

New York

USA

Familia/Egoitza

+16 URTE | URTE OSOAN

Nork ez du inoiz amets egin New Yorken ingelesa ikastearekin? Ikasteaz gain, Broadwayko musikal batera joateko, Times Squaren gau bat igarotzeko, Brooklyngo zubia zeharkatzeko edo Bosgarren Hiribidean erosketak egiteko aukera izango dituzu.



IKASTAROAK

Manhattanen muin zalapartatsuan dago, 5. hiribidearen aldamenean eta Bryant Parken ondoan, eta hainbat eraikin historiko ditu inguruan, hala nola New Yorkeko Liburutegi Publikoa, Times Square edo Grand Central geltokia.

Eraikinaren bi solairu okupatzen ditu, eta goi-teknologiako 12 gela, ikasleentzako aretoa, multimedia-gela eta salmenta-makinak ditu, eta wifia eskola osoan.

Gutxieneko adina: 17 urte.

Maila: A2 - C2

Ikasgelako gehieneko ikasle kopurua: 12.

1 ikasgai = 50 minutu.

Material didaktikoa eta lehen liburua barne dira.

Jaiegunak: urtarrilaren 1a, otsailaren 19a, maiatzaren 27a, ekainaren 19a, uztailaren 4a, irailaren 2a, azaroaren 28a eta 29a. Gabonak abenduaren 23tik 27ra.

Semi Intensive: English

16 eskola astelehenetik ostegunera, goizeko edo arratsaldeko ordutegian, eskolan egiten den maila-probaren arabera.

Intensive English: 20 eskola astelehenetik ostiralera, goizeko edo arratsaldeko ordutegian, eskolan egiten den maila-probaren arabera.

DATAK ETA IRAUPENA

Hasiera-eguna: astelehen guztiak.

Gutxieneko iraupena: 2 aste.



OSTATUA

Iristeko eguna: igandea

Irteteko eguna: larunbata

- **Familia*:**
 - Brooklynen edo Queensen: logela individuala eta gosaria. Eskolatik 30-60 minutura dago garraio publikoan. 5 eguneko afaria aukeran: 66 €/aste.
 - Manhattanen: logela individuala eta gosaria. Eskolatik 30-45 minutura dago garraio publikoan. 5 eguneko afaria aukeran: 103 €/aste.
- **Egoitza**:**
 - West Village: logela individuala bainugelarekin. Oheko arropa eta eguneko 2 otordu barne hartzen ditu. Eskolatik 15 minutura dago garraio publikoan. Eraikinak gimnasioa eta terraza ditu. Gutxieneko egonaldia: 4 aste.

* Hilabete batzuk lehenago erreserbatzea komeni da.

JFK / LA GUARDIA AIREPORTUKO JOAN-ETORRIAK

Ibilbideko prezioa: 212 €.

PREZIOA (€)

	2 ASTE	3 ASTE	4 ASTE
Semi Intensive English	1.063	1.439	1.721
Intensive English	1.157	1.580	1.909
Familia (Brooklyn)	832	1.203	1.575
Familia (Manhattan)	1.170	1.711	2.251
Egoitza	-	-	2.797

* Familiaren gehigarria 18 urtetik beherakoentzat: 24 €/aste.